# 4. GAIA: LEHEN MAILAKO DATUEN EKOIZPENERAKO DISEINUA: GALDETEGIA

Gizarte ikerketarako teknika kuantitatiboak

# GALDETEGIAREN DISEINUA

**FASEAK:**

1. **Helburuak->Hipotesiak->Aldagaiak**
2. Nori zuzendu? ->**Lagina**
3. **Inkesta mota** aukeratu: aurrez aurrekoa, telefonoz, posta edo on-line
4. **Galdera mota** hautatu eta galderak idatzi.
5. Galdetegiaren **sarrera** eta **jarraibideak** idatzi
6. Galdetegiaren beste **aspektu formalak** landu



# NOLA DISEINATZEN DA GALDETEGIA

## GALDETEGIA

- **Definizioa: Ikerketa baterako interesgarriak diren gaien inguruan inkestatuak diren pertsonek zuzenean erantzungo dituzten galdera xorta da.**
- **Kontu eta tentu handiz idatzi behar dira galderak:**
    a. **Ahalik eta erarik inpartzialean (sesgorik gabe)**
    b. **Zalantzarik eragin gabe**
    c. **Modu ulergarrian**
    d. **Ikerketaren atal guztiak barnebilduz**



# NOLA DISEINATZEN DA GALDETEGIA

## GALDETEGIA

- Galdetegiaren diseinu eta elaborazioa kontuan hartu behar dira atal teknikoak (aldagaien kodifikazioa, galdera mota) eta edukiari dagozkionak (gure helburuei lotutakoak)
- Oso garrantzitsua da "test aurrekoa" (pretest) egitea. Galdetegia frogatzea.
- Oso garrantzitsua da inkestatzaileak formatzea bai edukiaren inguruan zein galderak egiteko moduaren inguruan



# GALDERA MOTAK

- ERANTZUTEKO AUKERAREN ARABERAKOAK
  - Irekiak ala itxiak
- FUNTZIOAREN INGURUAN
  - Filtroak, galdera-multzoak, kontrolerako, indargetzaileak (amortiguadoreak)

# 1.-GALDERA IREKIAK ETA ITXIAK

## GALDERA IREKIAK

- Ez dira balizko erantzunak proposatzen
- Inkestatuak librean erantzun dezake
- Gaiari buruz gutxi dakigunean edo erantzunak zehaztea konplikatua denean
- Iritziak, jarrerak eta motibazioak jasotzeko aproposak
- Bat bateko erantzunak aberasgarriak dira
- Erraza da jasotzea, baina zaila eta garestia da erantzunen analisia egitea



# GALDERA IREKIAK ETA ITXIAK

## GALDERA ITXIAK (I)

- Erantzunak galdetegia egiterakoan erabakitzen dira.
- Ikerlariak aldez aurretik erantzun aukerak zehaztu eta inkestatzaileak erantzun kopuru mugatu bat eskaintzen du.
- Dikotomikoak edo kategoria anitzekoak.
- Ikerlariak informazioa beharko du inkestaren gaiaren inguruan galdera egokiekin batera, erantzun egokiak ere eskaini ahal izateko.



# GALDERA IREKIAK ETA ITXIAK

## GALDERA ITXIAK (II)

- Galdera itxiak onak dira erantzun azkarrak lortu nahi direnean edo telefonoz egiten denean.
- Operazionalizazio azkar bat egitea ahalbideratzen dute.
- Eskainitako erantzunak oso zehatzak eta baztertzaileak behar dute izan. Bata aukeratzeak, bestea ukatzen du.
- Komeni da tarteko erantzunik ("berdin zait" "indifirente") erantzuna ez eskaintzea jarrera bat bultzatzeko.



# ADIBIDEAK GALDERA ITXIAK

**43.a) Zein kargu edo kategoria duzu edo zeneukan enpresan?**

| | |
|---|---|
| . Zuzendariak, Zuzendariordeak, Gerenteak, Enpresariak | 1 |
| . Goi-mailako teknikariak | 2 |
| . Erdi mailako teknikariak (OLT, Irakasleak, Kontulariak, Perituak) | 3 |
| . Langileburuak, Enkargatuak, Saltzaile bidaiariak | 4 |
| . Teknikari espezialistak, Ofizialak, Administrariak | 5 |
| . Teknikari laguntzaileak, Klinika-lag., Administrari-lag., Saltzaileak | 6 |
| . Atezainak, Ordenantzak, Peoiak, Aprendizak, Laguntzaileak | 7 |
| . Ez daki | 8 |
| . Ez du erantzun | 9 |

**P.4** ¿Cómo calificaría Ud. su situación económica personal en la actualidad: muy buena, buena, regular, mala o muy mala?

- Muy buena ............... 1
- Buena ..................... 2
- Regular ................... 3
- Mala ....................... 4 (35)
- Muy mala ................ 5
- N.S. ......................... 8
- N.C. ......................... 9

# ADIBIDEAK GALDERA IREKIAK

**P.9** ¿Cuál es, a su juicio, el principal problema que existe actualmente en España? ¿Y el segundo? ¿Y el tercero?

______________________________ (40)(41)

______________________________ (42)(43)

______________________________ (44)(45)

N.S. ............... 98
N.C. ............... 99

**A QUIENES HAN DICHO "MEJOR" EN P3**

P4a.- ¿Por qué lo cree así? (ENTREVISTADOR/A: RESPUESTA ESPONTÁNEA. **MÚLTIPLE**).

______________________________

98. N.S.
99. N.C.

**IDATZI LANBIDEA**......................................................................................................

LANBIDEA. Lanbidearen kodea |___|___|___|

# GALDERA ITXIAK IZAN DAITEZKE:

- Dikotomikoak
- Politomikoak edo kategorizatuak
  - Erantzun bakarra edo erantzun anitzerako aukera
- Zenbakizkoak

# DIKOTOMIKOAK

## Generoa:

- GIZONA
- EMAKUMEA

## Adina:

- > 65 urte
- < 65 urte

# ZENBAKIZKOAK

## Baloratu diskurtsoa 1tik 10era:

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

# POLITOMIKOAK EDO KATEGORIZATUAK

zein da zure lanpostuarekiko asebetetze maila:

- Guztiz asebetea
- Asebetea
- Indiferentea
- Ez asebetea
- Batere ez asebetea

# POLITOMIKOAK EDO KATEGORIZATUAK (ERANTZUN ASKOTARIKOA EDO EZ BAZTERTZAILEA)

## Zer egiten duzu aisialdian? (Erantzun bat baino gehiago eman daiteke)

- Kirola
- Telebista ikusi
- Interneten ibili
- Paseatu
- Irakurri
- Lagunekin egon
- Musika entzun edo jo



# DIKOTOMIKOAK

**Generoa:**

1. GIZONA
2. EMAKUMEA

**Adina:**

1. > 65 urte
2. < 65 urte

**Kontuz: horrela ere ez dira zenbakizkoak**

# POLITOMIKOAK EDO KATEGORIZATUAK

**zein da zure lanpostuarekiko asebetetze maila:**

1. Guztiz asebetea
2. Asebetea
3. Indiferentea
4. Ez asebetea
5. Oso ez asebetea

# LIKERT ESKALA: OSO ERABILIA DEN GALDERA MOTA (KATEGORIZATUA)

- Jarrera eta adostasun maila neurtzeko oso egokia.
- Adierazpen batekiko adostasun maila aztertu nahi duen galdera mota da.
- Adostasun maila eskala baten arabera neurtu nahi da eta, oro har, bost mailetako item-a da erabiliena:
  - Guztiz desados
  - Desados
  - Ez ados, ez desados
  - Ados
  - Guztiz ados

## adibidea

Mi aportación a la empresa es siempre valiosa.

**Ejemplo de la escala de Likert**

| Totalmente en desacuerdo | En desacuerdo | Ni de acuerdo, ni en desacuerdo | De acuerdo | Totalmente de acuerdo |
|---|---|---|---|---|
| ○ | ○ | ○ | ○ | ○ |

# GALDERA MOTAK

- ERANTZUTEKO AUKERAREN ARABERAKOAK
  - Irekiak ala itxiak
- FUNTZIOAREN INGURUAN
  - Filtroak, galdera-multzoak, kontrolerako, indargetzaileak (amortiguadoreak)

# 2.- FUNTZIOAREN ARABERA

- **Filtroak:** Galdetegiaren atal batzuetatik bestera pasatzeko aukera ematen duten galderak dira
- **Galdera-mutzoak:** gai edo azpi-gai bereko galdera multzo bat da, inkestan elkarrekin aurkitzen dira eta errazenetik zailenera prestatzen dira. Galderen enbutu gisa ere ezaguna da.
- **Kontrolerako galderak:** Galdetegiaren une ezberdinetan antzeko eran idatzitako galderak dira eta helburua da inkestatuak gauza bera erantzuten duela frogatzea.
- **Indargetzaileak:** Ondoren egingo diren galdera zailagoen aurretik kokatzen diren galdera errazagoak dira. Eduki zehatz bati begira sarrera lasai moduan

## Filtro galdera adibidea

1. Umeak dituzu?
   - Bai
   - Ez (jo 3. galderara)
2. Zenbat ume?___
3. Zein da zure lanbidea?
   - Dendaria
   - Erizaina
   - Irakaslea
   - Ingeniaria
   - ...

## Kontrol galdera adibidea

1. Arrazista zara?
- Bai
- Ez
- Ez daki/Ez du erantzuten

8. Uste duzu oro har denak garela zertxobait arrazistak?
- Bai
- Ez
- Ez daki/Ez du erantzuten

# GALDERAK IDAZTEKO GOMENDIOAK

- Inkestak hizkera edo lengoai errazean egon behar dute idatzita.
- Hizkera eta lengoai hori inkestatua izango den populazio edo laginaren ezaugarriei erantzun behar die.

**Adibide okerra:**

**Nola baloratzen duzu Europar Batasuneko banku zentralak finantza sistemaren likidezia bermatzeko martxan jarri dituen zor publikoaren bonuak eta likidezia injekzio neurriak?**



# GALDERAK IDAZTEKO GOMENDIOAK

- Inkestan ezin dira hitz abstraktu edo anbiguoak erabili.
- Oro har, galderak ez du zalantzarako tarterik utzi behar eta zertaz ari garen eta zer galdetu nahi dugun ondo zehaztu behar da.

**Adibide okerra:**

**Nola baloratzen dituzu Nazioarteko Diru Funtsak egin berri dituen azken adierazpenak?**



# GALDERAK IDAZTEKO GOMENDIOAK

- Galderak idazterakoan honoko ezaugarriak dituela bermatu beharra dago: labur, zehatz, zuzena eta pertsonala

**Adibide okerra:**

**Formakuntza norberaren garapenerakoa zein garrantzitsua den kontuan hartuz eta azken aldian zure bizitza laboralean agian aldaketa asko gertatu badira ere, jaso duzu edonolako formakuntzarik?**



# GALDERAK IDAZTEKO GOMENDIOAK

- Galderak idazterakoan ahalik eta erarik neutralenean idatzi behar dira.
- Galderek ez dute, zuzenean ala zeharka, erantzun bat ala bestea zertan lehenetsi edo bultzatu.

**Adibide okerra:**

**Gobernuak krisi egoerari aurre egin eta ekonomiaren jarduera babestu eta hobetzeko hainbat neurri hartu ditu. Zein mailatan zaude ados edo desados neurri horiekin?**



# GALDERAK IDAZTEKO GOMENDIOAK

- Galderak idazterakoan kontzeptu bakar bati buruz galdetzen dugula bermatu beharra dago.
- Galdera bakoitzean ideia bakar bati buruz galdetu behar dugu?

**Adibide okerra:**

**Uste duzu gobernuek krisi egoerari aurre egiteko neurri egokiak hartzen ari direla eta kudeaketa egokia egiten ari direla?**



# GALDERAK IDAZTEKO GOMENDIOAK

- Saiatu egiten ditugun galderak inkestatuarentzat lan edo esfortzu gutxi suposatzea.
- Ekidin halakoak: memoria ariketa zaila izatea, artxiboetara joan behar izatea, zenbakizko kalkulu zailak egin araztea...

**Adibide okerra:**

**Zehazki, zenbat irabazi dute gordinik zure unitate familiarreko kide guztiak pasa den urtean?**



# LABUBILDUZ

- Hizkera erraza
- Hitz eta galdera anbiguorik ez
- Labur, zehatz, zuzen eta pertsonala
- Ahalik eta neutralena izan
- Ideia bakar bat
- Ez eragin esfortzu berezirik inkestatuari



# EDUKIA ETA GALDETEGI MOTAREKIN ERLAZIONATUTAKO HAINBAT AIPAMEN

- Ez egin galdetegi luzeak, are gehiago telefono bidezko inkesta baterako bada.

- Galdetegiaren galderak izan behar dute:
  - **Interesgarriak** (ikerketa gaiarekin lotuta)
  - **Beharrezkoak** ("Behar" dugun informazio zehatzari lotuta)
  - **Laburrak** (Harira joan behar da)
  - **Konparagarriak** (Beste ikerketekin alderatzeko baliogarriak)
  - **Diskretuak** (inkestatuaren diskrezio maila bat bermatuz)

# EDUKIA ETA GALDETEGI MOTAREKIN ERLAZIONATUTAKO HAINBAT AIPAMEN

**Galderen ordena** kontuan hartu behar da distortsiorik eragin ez dezan:

- Galdera orokorrak zehatzen aurretik ("inbutua")
- Saiatu ordenu logiko bat mantentzen inkestatuak aldaketa bortitzak sentitu ez ditzan galdera batzuetatik besteetara
- Saiatu lehen galderak inkestatuaren interesa eta arreta pizteko egokiak izatea.

# EDUKIA ETA GALDETEGI MOTAREKIN ERLAZIONATUTAKO HAINBAT AIPAMEN

**Galderek bi motatako informazioa** eman behar digute:

- Identifikazio datuak: Generoa, egoera zibila, adina... Hauek aldagai independienteen izaera hartuko dute aldagaiak gurutzatzerakoan
- Ikerketa gaiari buruzko datuak. Hauek aldagai dependienteen izaera hartuko dute, oro har, aldagaiak gurutzatzerakoan

# GALDETEGIAREN KODIFIKAZIOA

**Kodifikazio prozesua** da aldagaia bakoitzaren inguruan egiten dugun galdera bakoitzean **erantzun bakoitzari zenbaki bat** egokitzea.



# GALDETEGIAREN KODIFIKAZIOA ADIBIDEAK

**¿Qué estudios tiene finalizados?** *Leer opciones en caso que sea necesario.* (v3)

(1) Sin estudios
(2) Estudios Primarios (EGB, Bachiller elemental, E. Primaria)
(3) Estudios Secundarios (E.S.O, Bachiller superior, REM, BUP, COU.)
(4) Formación Profesional de Grado Medio o Superior
(5) Medios superiores y Superiores (Diplomatura, Licenciatura, Postgrado, Doctorado, etc.)
(6) Otros Especificar (v3texto)

¿Qué tipo de cuenta tiene *actualmente* en este banco? (marque con [illegible] todas las que correspondan).

| | | |
|---|---|---|
| Cuenta de ahorros | ☐ | (162) |
| Cuenta de cheques | ☐ | (163) |
| Hipoteca | ☐ | (164) |
| Inversión a la vista | ☐ | (165) |
| Club de inversión (navidad, etcétera) | ☐ | (166) |
| Línea de crédito | ☐ | (167) |
| Cuenta de ahorros a plazo fijo (depósitos a plazos, etcétera) | ☐ | (168) |
| Seguro de vida con inversión | ☐ | (169) |
| Crédito para remodelación de casa | ☐ | (170) |
| Crédito automotriz | ☐ | (171) |
| Otros servicios | ☐ | (172) |

# KODIFIKAZIOAN ALDAGAIEI ERE ZENBAKIA EZARRI BEHAR ZAIE

**¿Qué estudios tiene finalizados?**
*opciones en caso que sea necesario.* (v3)
(1) Sin estudios
(2) Estudios Primarios (EGB, Bachiller elemental, E. Primaria)
(3) Estudios Secundarios (E.S.O, Bachiller superior, REM, BUP, COU.)
(4) Formación Profesional de Grado Medio o Superior
(5) Medios superiores y Superiores (Diplomatura, Licenciatura, Postgrado, Doctorado, etc.)
(6) Otros Especificar (v3texto)

**¿Zein da gure zerbitzuari buruzko asebetetze maila? (2A)**
*(1) Oso asebetea*
*(2) Asebetea*
*(3) Indiferentea*
*(4) Ez asebetea*
*(5) Batere asebetea*

# ERANTZUN ANITZAK ETA EZ BAZTERTZAILEAK ONARTZEN DITUZTEN KASUAREN BEREZITASUNA: ERANTZUN BAKOITZA ALDAGAI GISA ZENBATU

Zein motatako lanak egiten dituzue zure kooperatiban?

- Zerbitzu informatikoak (A31)
- Lan aholkularitza (A32)
- Antolakuntzari buruzko trebakuntza (A33)
- Komunikazio tresnen erabilpena (A34)
- Coaching zerbitzua (A35)
- Kudeaketa eta talde dinamiken inguruko trebakuntza (A36)
- Proiektu bidezko kudeaketaren gaineko aholkularitza (A37)
- Besterik (idatziz) (A38)

# HALAKO TAULAK PROPOSATZEN DITUGUNEAN ERE: ITEM BAKOITZA ALDAGAI GISA ZENBATUKO DUGU

| Las asociaciones, fundaciones, ONGs… | Nada de acuerdo | Poco de acuerdo | Bastante de acuerdo | Totalmente de acuerdo | NS/NC No leer |
|---|---|---|---|---|---|
| …se caracterizan estar compuestas en parte por personas voluntarias (v21.1) | 1 | 2 | 3 | 4 | 99 |
| …surgen de la iniciativa ciudadana. (v21.2) | 1 | 2 | 3 | 4 | 99 |
| …funcionan con independencia de la administración pública (gobiernos), las empresas, etc. (v21.3) | 1 | 2 | 3 | 4 | 99 |
| …no buscan beneficios económicos y si los consiguen los invierten siempre en su actividad. (v21.4) | 1 | 2 | 3 | 4 | 99 |

| Administraciones públicas (gobiernos) (v26.1) | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Iglesia (v26.2) | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 |
| Asociaciones, fundaciones, ONGs (v26.3) | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 |
| Empresas (v26.4) | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 |
| Sindicatos (v26.5) | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 |
| Partidos políticos (v26.6) | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 |

# GAITEGI BATEN ATALAK

- Izenburua eta goiburua.
- Aurkezpena
  - Inkestatzailearen aurkezpena eta helburua
  - Zer gai lantzen den, nork egin eta finantzatzen duen eta zertarako?
- Galderen atala
  - Errazak
  - Zailak
  - Irekiak
  - Sozio-demokgrafikoak
- Agurra eta eskertza

# DATUEN MATRIZA: ALDAGAIEN ANTOLAKETA ETA TRANSFORMAZIO EDO ERALDAKETA

**ZUTABEAK ALDAGAIAK**

**ILARAK INKESTATUAK**

1 : educ    3

| | educ | estciv | edadcasa | Género | región | edad | pensami | niveduc |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 3 | 1 | 45 | 1 | 4 | 53 | 8 | 0 |
| 2 | 0 | 1 | 14 | 1 | 3 | 63 | 4 | 0 |
| 3 | 6 | 1 | 18 | 1 | 3 | 40 | 4 | 0 |
| 4 | 12 | 1 | 25 | 2 | 3 | 52 | 8 | 1 |
| 5 | 9 | 1 | 17 | 1 | 4 | 61 | 7 | 0 |
| 6 | 9 | 1 | 16 | 1 | 4 | 27 | 4 | 0 |
| 7 | 12 | 1 | 20 | 1 | 4 | 35 | 4 | 1 |
| 8 | 7 | 1 | 16 | 1 | 4 | 61 | 2 | 0 |
| 9 | 14 | 1 | 36 | 1 | 4 | 79 | 4 | 1 |

Vista de datos / Vista de variables

SPSS El procesador está preparado

# DATUEN MATRIZA: ALDAGAIEN ANTOLAKETA ETA TRANSFORMAZIO EDO ERALDAKETA

ZUTABEAK
ALDAGAIAK

ILARAK
INKESTATUAK




| | A | B | C | D | E | F | G | H | I | J | K | L | M |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 25 | 3 | 1 | 5 | 2 | 1 | 2 | . | . | 2 | 2 | 2 | . |
| 2 | 22 | 2 | 2 | 5 | 3 | 3 | 1 | 2 | . | 1 | 2 | . | 1 |
| 3 | 20 | 2 | 2 | 5 | 3 | 1 | 1 | 1 | 2 | 1 | 2 | 2 | 2 |
| 4 | 18 | 2 | 2 | 3 | 3 | 3 | 2 | 2 | . | 1 | 2 | 2 | 2 |
| 5 | 20 | 2 | 2 | 5 | 3 | 3 | 2 | 1 | 2 | 2 | 2 | 2 | 2 |
| 6 | 21 | 2 | 2 | 5 | 3 | 3 | 2 | 2 | . | 2 | 2 | 2 | 2 |
| 7 | 20 | 2 | 2 | 5 | 3 | 3 | 2 | 2 | . | 2 | 2 | 2 | 2 |
| 8 | 26 | 3 | 2 | 3 | 1 | 1 | 2 | 2 | . | 2 | 2 | . | . |
| 9 | 29 | 3 | 2 | 4 | 2 | 2 | 2 | 1 | 1 | 2 | 2 | 2 | 2 |
| 10 | 21 | 2 | 1 | 4 | 2 | 3 | 2 | 1 | 2 | 1 | 2 | 2 | 2 |
| 11 | 26 | 3 | 2 | 5 | 1 | 2 | 2 | 1 | 2 | 2 | 2 | 2 | 2 |
| 12 | 31 | 4 | 2 | 5 | 1 | 1 | . | 1 | 1 | 2 | 2 | 2 | 2 |
| 13 | 31 | 4 | 2 | 5 | 1 | 1 | 1 | 1 | . | 2 | 2 | 2 | 2 |
| 14 | 22 | 2 | 2 | 4 | 3 | 3 | 1 | 1 | 2 | 2 | 2 | 2 | 2 |
| 15 | 19 | 2 | 2 | 4 | 3 | 3 | 2 | 2 | . | 2 | 2 | . | . |
| 16 | 59 | 5 | 2 | 3 | 1 | 1 | 2 | 2 | . | 2 | 2 | 2 | 2 |
| 17 | 68 | 6 | 2 | 3 | 4 | 4 | 2 | 2 | . | 2 | 2 | 2 | 2 |
| 18 | 31 | 4 | 2 | 4 | 2 | 3 | 2 | 2 | . | 1 | 2 | 2 | 1 |
| 19 | 19 | 2 | 1 | 3 | 3 | 3 | 2 | 2 | . | 1 | 2 | 2 | 2 |
| 20 | 18 | 2 | 2 | 3 | 3 | 2 | 2 | 2 | . | 2 | 2 | 2 | . |